

# Mundu bat, Marijane

Adineko (idazle) bat hiltzen denean, munduaren memoriaren parte bat da ezerezean urtzen. Neurriak neurri, Amadou Hampaté Ba ezagunaren ebazpena aplikatzen ahal zaio Bankan sortu izkiriatzaileari ere naski. Dena delakoan, ideia horrek urratu zidan kasko zokoa barda, Marijane Minaberrri (1926-2017) zendu zela jakinarazi zidatenean.



Itxaro Borda

Baiona eta Uztaritze artean pasatu zuen bizitzaren zatirik handiena *Basque-Eclair* egunkarian lanean, idazkari gehienetan, baina noizbehinka artikulua plazaratzen behialako euskaldunen irakur-tiria asetzearren. Erran behar da denbora haietan leitzeko ohitura indartsua zela jendar-tean... eta, aitzindaria zen jorratzen zituen alor guztietan: kazetaritzan, irratigintzan bai eta literaturan, bazterrak sekula harrotu gabe.

Itzalpeko ekilea zen, nolabait euskal gauzek eta euskaldun haurrek pasionatzen zutena, isilean eta orduko emazteei zegokien umiltasunean ari zena, nahikoa apaletsiak ziren ildoak urratzen. Emakume askorik ez baitzen ospetsu egin iparraldeko hitzaren historian zehar, XIX.

mendeko hondarreko Maddi Ariztia eta Marijanek garaikide zuen Madalena Jaurregiberri Alosekoaz aparte. Ardurenean, idazkiak sinatzeko izengoitiak erabiltzen zituen, Andereño edo Atalki besteak beste, anonimotasunak ziurtasuna bermatuko balio bezala.

Umeak ginenean euskararen gustua txertatuko zigun Pariseko osabak eguberrian bidaliriko *Txori Kantaria* bildumak, bere azal berdeaz gerizatu poesiekin, gure ingurune naturaleko elementuak zituela mito bihurtzen hala nola euria, elurra, txoriak, lapinak, mendiak eta ibaiak. Beranduago Haize Garbia elkartearen eskutik agertu *Dictionnaire Basque pour tous* haren bi tomoak baliatu genituen gure pertausen zakarrak leuntzen saiatzeko.



EUSKONEWS

Marijane Minaberrri otsailaren 23an hil zen. Haren sorkuntza ezaguna egin zen Oskorrik bere poemekin kantak argitaratu zituenean.

Marijane Minaberriren behako abila, kokina eta determinatua dagoeneko argazkietan baizik ez dugu ikusiko. Bidegileak ezinbesteko sailaren ale batean adibidez. *Herria* astekarian Ezponda bertsolariarekin emazteen lekuaz pataskaz ari zela ez zuen beldurrik ahoan bilorik gabe erantzuteko, alderantziz. Umila izanagatik, kuraiosa izan baitaiteke.

Batzuetan iruditzen zait Marijane Minaberrik gaur iparraldean (eta hegoaldean halaber, egoera ez baitzen hobeagoa) hazi diren emazte idazle eta plaza-andere belaunaldiari atea ireki ziola. Gogoetaren ukigarritasunak inarosten nau goiz umezurtz honetan.

Marijane, kantazan orain gure bihotzetan! ■